

JAURLARITZAREN POLITIKAK ERAGOZTEN DU ELKARRIZKETA SOZIALA

BATZORDE ERAGILEAREN DOKUMENTUA
2014-VI-9



SARRERA

Agiri honen bidez ELAk bere posizioa finkatu nahi du Gasteizko gobernuak Elkarrizketa Sozialerako Mahaia eratzeko egin duen proposamena dela eta.

Agiri honetan gai hauek aipatzen dira: gobernuen politikak, elkarrizketa soziala proposatzen den eskumen-markoa, gobernuak patronalen eta sindikatuen artean ustez duen ekidistantzia, LABen azken proposamena eta azken ondorioak.

Gobernuak elkarrizketa soziala esparru oso murriztera mugatu nahi du, eta gaia aztertzeotan gure iritziz hori gainditu beharra dago. Elkarrizketa sozialak, izatekotan, aintzat hartu behar ditu eduki sozialak, posible egingo duten diru-sarrerei zein gastuen erabilerari dagokionez; euskal esparru bat izan behar du kontutan, espainiarretik bereizita solidaritate politikak indartzeko, eta noski, kontutan izan behar ditu ere parte hartze erreala ziurtatzeko bideak politika horiek baldintzatzen dituzten arlo guztietan (fiskalitatea...). Halaber, elkarrizketa sozialak negoziazio kolektiboak izan beharreko eginkizuna aztertu behar du, arlo publiko eta pribatuan (faktore hau erabakigarria da sortutako aberastasuna nola banatzen den aztertzeo).

Mahai horretan parte ez hartzeko erabakiak gure sindikatuarentzat azalpenak eman beharra dakar, botere ekonomiko eta politikoaren jarrera ikusirik, estigma ezarri nahi baitigute beren erabakiak babesten ez ditugunoi. Hedabide pribatu eta publiko gehienak kontrolpean dituztenez, gure posizioak inolako zehaztasun informatiborik gabe ezkutatu eta manipulatu egiten dira. Ez dute onartzen erabateko autonomiatik interperlatzen dituen sindikalismorik. ELAk salatu egin nahi du helburu horrekin EITBk betetzen duen eginkizuna.

ELAren iritzia da azken hamarkadetan, gobernuen erabateko laguntzarekin, trantsizio bat marraztu dela soziala dena murriztu edo suntsitzeraino, non lan ez formala (prekarioa eta eskubiderik gabea) arau bihurtuko den; helmuga da gizarte horretan langabezia eta txirotasuna banakoen arazotzat hartzea, ardura politikoak saihestearren eta kapital-errententzako tratu hobea ahalbidetzeko. Zein da asmoa? Berrito kapitala metatzeko fase bati ekitea. Hautu politiko hau, langabezia koartadatzat hartzen duena, po-

sizio ideologiko bat da -neoliberalismoarena-, eta badaki politikan ia erabateko hegemonia duela.

Politika hau babesten duten gobernuak us-tezko elkarrizketa soziala baten antzezpena egiteko egarriz daude, legitimitate soziala lortzeko. Haatik, ELA ez da joko horretan sartuko.

1.- ELKARRIZKETA SOZIALA EZ DU ELAK ERAGOZTEN, JAURLARITZAREN POLITIKAK BAIZIK

Eusko Jaurlaritzak erabaki du ELAri leporatzea elkarrizketa sozialik ez egotea. Eduki eta jokoa arau demokratikorik gabeko mahai bat eratze aldera esan du "ez dugu onartuko inork elkarrizketa soziala galarazterik".

Halako adierazpenekin bere politikaren mamia beste norbaiti egotzi nahi diote; politika horiek, kosta ahala kosta mantentzen dituztenak, oraindik enplegua suntsitzen ari dira eta desberdintasuna areagotzen dute. Deigarria da doikuntza estrukturalako politika horiek erabaki eta aplikatzen dituztenek guri leporatzea elkarrizketa soziala eragozten dugula.

Gobernuak mugimendu sindikalaren babesa bi-latzen du. Enplegu Sailburuak Nafarroako elkarrizketa sozialeko eredu bera ezarri nahi du. Gure iritziz, mahai horietan sindikatuak egoteak mugimendu sindikala indargabetzea dakar, hain zuzen foro instituzional hutsaletatik aldentzeko inoiz baino premia handiagoa dagoenean, alternatiba sozial sinesgarri bat osatze aldera. Esan nahi dugunaren adibide gisa balio du Nafarroan arduradun sindikal batek esandakoa: "Gobernuaren erabakiak direnak direla ere, elkarrizketa soziala izango da".

Eusko Jaurlaritzako kide batzuk publikoki esan dutenez, "sindikatuak dagokien eginkizuna ez dute betetzen". Baina gobernuaren lana ez da gure eginkizuna zein den definitzea. Jaurlaritzaren ere botere ekonomikoak hauspotzen duen koru antisindikalera bildu da. Hitz horiek interes bat ezkutatzeko dute: sindikatuak gobernuaren kide izatea, bere politika orokorra zalantzan ez jartzea eta kontsentsu irudia hedatzen laguntzea, hain justu politikak unilateralen eta antisozialen diren unean.

Sailburuak lanak hartzen ditu azaltzeko elkarrizketa horretan ezer ez dagoela “aurrez erabakita, guztion artean erabakiko baitugu”. Hori ez da egia, ordea. Funtsezko kontu guztiak mahai horretatik kanpo erabakita daude: Diru-sarrerak (fiskalitatea), aurrekontu-politika (gastu eta defizit publiko maila), osasun politikak, hezkuntza, zerbitzu sozialak, etxebizitza, prestazio sozialak, etab. Hau dena kanpoan geratzen da; halako mahaiak elkarrizketa hutsal bat egiteko dira. Beraz, elkarrizketa soziala ez du ELAk eragozten, gobernuaren politika antisozialak baizik, zeinak desberdintasuna, langabezia eta txirotasuna areagotzen baitu; politika hori medio ezinezkoa da eurek egin nahi dutenari elkarrizketa soziala deitzea.

Politikak aldatu ezean –eutsi egingo dietela iragarri dute–, Mahai horretan landuko dena, gaiei eta edukiei dagokienez, ez da bereiziko PSE-EEko Lopez Lehendakariaren garaian CCOO, UGT eta Confedebaskekin izan zenetik.

Gobernua enpleguaz kezkatuta badago, estatistika da bere buruhauste bakarra; hots, enplegu zatikatua eta lanaldi partzialeko kontratuak sustatu nahi ditu, datuak txukuntze aldera, horrela benetako enplegu maila eta kalitatea hobetu ez arren. Helburua da jende gehiago lanean ari delako itxura ematea, egungo hainbat kontraturekin lehengo bakarra osatzea ezinezkoa bada ere.

Horrenbestez, esatea “mahai horietan egonda eragin handiagoa” lortzen dela aitzakia besterik ez da, parte hartzea erabaki duen sindikatu batek eman dezakeena posizio alternatiboak gartzeko ezintasuna ezkutatzearren. Politikan beharrezkoa dugun aldaketa ez da iritsiko doikuntza politikak lagunduta. Aldatzekotan, mugimendu sindikalak bakarrik utzi behar ditu politika horiek ezartzen dituzten gobernuak eta gizartea mobilizatu behar du. “La demonización de la clase obrera” liburua idatzi duen Owen Jonesek ere bestela azaldu du kontu bera: “eskubi-deak ez dira goikoen eskuzabaltasunari esker etorriko, behekoen borroka eta sakrifizioei esker baizik”. Hala izan da beti.

ELAren ustez, doikuntza estrukturalako politika horiek elkarrizketa soziala izateko aukera oro zapuzten dute.

2.- ESKUMENIK GABEKO GOBERNUAK EAEN EREDU ESTATALA HEDATZEN DU

Jaurlaritzak ez du inola ere aipatu nahi arlo sozialaboralean duen araugintza eskumenen gabezia. Hau ez da badaezpadako kontua, espainiar araudia suntsitzen ari baita geratzen zen oreka apurra, era guztietako erreformak ezarriaz (laboralak, pentsioena, etab.). Erreforma estruktural hauek patronalaren eta ez beste inoren mesedetan egiten dira.

Eusko Jaurlaritzak men egiten dio hari eta bere Mahaia desoreka nabarmeneko errealitate horren gainean eratu nahi du. Ondorioz, oso gauza gutxitaz mintza daiteke, eta hauei gainera patronalak betoa ezar diezaieke. Hala da, gobernuak dioenez, “aldeek hitzartzen dutena” egingo omen du. Baina patronalak ez du ezer hitzartu beharrik. Gauzak hala jarrita, patronalari beto ahalmena ematen dio gobernuaren politikarekiko.

ELAk ukatzen duen araudi espainiar horren ondorioz, litekeena da beste erreforma laboral ate joka egotea; Urkulluk Rajoyrekin defizit mugak adostu izana dakar: 2014 eta 2015erako (%0,7), eta 2016rako (%0,2), baita zor publikoaren ordaina lehenestea ere... PPK aurreratu du fiskalitatean beste astindu bat emango duela... Euskal Erakundeek filosofia fiskal bera aplikatuko al dute hemen? Gaur arte horixe egin izan dute.

Eskumen gabezia honekiko Eusko Jaurlaritzaren ardura agerikoa da. EAEra enplegurako preskakuntzaren eta lan-osasuneko politiken eredu estatala ekartzeaz gainera, hainbat hamarkadako norgehiagoka politikoaren buruan ontzat eman du enplegu-politika aktiboak ahalmen konpetentzialik gabe bereganatzea, politika pasiboak ahaztuta. Hots, bere eginkizuna Espainiako eredu bera “kudeatzea” besterik ez da izango. Hau amore emate oso larria izan zen eskumene-kiko. Hedatzen den eredia gaiztoa da (erakundek finantzatzeko iturri delarik), eta gainera aurrez ere erabat porrot egin du.

3.- GOBERNUAREN POLITIKAN EZ DAGO EKIDISTANTZIARIK

Eusko Jaurlaritzaren jarduna, ELAren ustez, ez da patronalaren eta sindikatuen arteko erdibidean kokatzen.

Kapitalak krisia beretzako aukera bihurtu du duela sei urte amestu ere egingo ez zutena lortzeko; zoritxarrez, gobernuek dena ematen diote oraindik. Legeek lan-harremanetako oreka patronalaren aldera lerratzen dute; gastu soziala gero eta murriztagoa da, behar handiena dagoenean; zerbitzu publikoak pribatizatzen dira, eta asmo bera dute Kutxabanki dagokionez... Gainera, gobernuek babes ideologikoa ematen diote patronalari, bere posizioetan bermatuz eta kritika ELAri eginez. Eusko Jaurlaritzako ardura-dunak patronalaren posizioetara horrela lerratzea bereziki kritikagarria da.

Horrek adierazten du politikan oreka erabat galdu dela; klase-interes batzuren defentsa nabarmena da. ELA dago kritika guztien jopuntuan; ez dago gaitzespenik kapitalarentzat eta patronalarentzat. Elkarrizketa berean diote “ekidistante” direla, baina jarraian soldatak murriztu beharra dioen patronalaren tesia berresten dute edota borroka sindikala kriminalizatzen saiatzen dira, esanaz “gatazka soziala traba” dela; aitzitik, erabat saihesten dituzte ugaltzen ari diren injustizia eta esplotazio baldintzak. Jaurlaritzako ki-deak ohiko gonbidatu dira foro enpresarialetan, eta patronalaren posizioa babesten dute beti.

Gobernuaren joera horri Tapia sailburuak “hautu politiko” deitu dio; honi gaineratu behar zaio Jaurlaritzak berak kudeatzen dituen esparruetan egiten duena. Jaurlaritzaren soldaten murrizpenaren aitzindari da; arlo publikoan negoziazio kolektiboko eskubidea ezabatu egin du, eta berari buruz mintzatzen denean arlo pribatua besterik ez dauka gogoan; beti beste inori buruz ari da, bere eskumeneko esparruetan duen ardura larria ezkutatu. Hau ezin da inola ere onartu.

4.- CONFEBASK

Patronalak eskatzen duen guztia legeak ematen dio; izan ere, aitortu dutenez, sindikatuekin “negoziatu beharrik ez dago”. Legetik nahi duen guztia lortzen duenak zertan negoziatu behar du? Testu legalekin fidatuta bizi da, baita Auzitegi Gorenak laster eman ditzakeen epaiekin ere (erreforma laboralari dagokionez patronalaren tesirik atzerakoiak bedeinka ditzake). Lasai dagoenez, patronalarentzat negoziazio kolektiboa garatzeko aukera bakarra erreforma goitik behera onartzea eta soldaten murrizpenari amore ematea da.

Confebask patronalak (CEOEko kide da), erreforma honen ostean hainbat erabaki hartu zuen: beste erreforma bat eskatzea, are gehiago des-arautzeko; erreformaren eraginik latzenak leuntzeko klausularik ez onartzea, hura indar guztiarekin aplikatu ahal izateko, eta sindikatuak lerratu zain geratzea, hauek bere posizioetaraino makurtu arte.

CEOEk berak esan du: “Ez daukagu negoziatzeko bat ere beharrik”. Badakite langabezia maila altuak ezartzen duen diziplina sozialari etekina atera diezaioketela, xantaiak eginez. Hau da gaur mundu sindikalak bizi duen benetako egoera.

Patronalak badaki sektoreko hitzarmenak honez gero ez direla derrigor bete beharreko minimoa, eta leku askotan ez direla aplikatu ere egiten. Enpresa mailan, berriz, helburua da ugazabak esparru horretaz baliatzea legeak eman dizkioen bitartekoei esker eskubideak suntsitzeko. Confebaskek, berriro diogu, ondo daki Sektorea ez dela derrigorrezko minimoa; Enpresa-ltunak oso erraz saihesten direla Lan-Baldintzen Funtsezko Aldaketari buruzko 41. artikulua aplikatuz; Urkulluk opari eman dien derrigorrezko arbitrajea hor duela, etab.

Politika sozialetan Confebaskek lobby gisa dihardu, murrizteko. Ogasunek patronalak eskatutako zerga-politika ezartzen dute, eta gainera hark murrizpen sozialak eskatzen ditu. Ez daude prest euren etekinekin politika soziala ordaintzeko. Horra opor fiskalen auzia: Ogasunek eta Confebaskek elkar hartu zuten epai bat ez betetzeko, eta orain nahi dute langileok ordaintzea EBko Auzitegiak ezarri duen 30 milioiko isuna, gehi prozesu-kostuak. Oraingoan ere beren arduragabekeria kolektibizatu egin nahi dute: Ezkutuan egin dituzten akordioak besteok ordaintzen ditugu. Nabarmendu nahi dugu Ogasun eta patronaletako goi karguetan dagoen joan-etorria; patronaleko idazkari nagusiak Administrazioarako izendatzen dituzte, eta alde-rantziz.

ELAk gauza bat agerian utzi nahi du: Confebask osatzen duten patronal gehienek ez daukate eginkizun horretarako behar besteko ordezkartza. Inork ez daki zenbateko ordezkartza duen gobernuak solaskidetzat hartzen duen erakundeak.

Patronalak ez du ordezkari-tza demokratikorik egiaz-tzaten; bere ordezkari-tza emana da. Confebaskekin Bizkaiko Ehungintzaren Merkataritzako Hitzarmenean gertatu dena ezin da onartu. Confebaskeko kide den CECOBik hitzarmen bat in-pugnatu zuen ezeztza zezaten, akordioa sinatu zuen patronalak (Bizkaidendak) baino ordezkari-tza txikiagoa izanik. Confebaskek ez du nahi ezerk eskuetatik ihes egiterik, ez bere monopoloa (eta finantza-iturriak) zalantzan jar dezakeen beste patronalik, ezta bere interesen kalterako hitzarmenik ere, areago agerian uzten badute bestelako negoziazio kolektibo bat posible dela. CECOBi-Confebasken argudioa balekoa balitz, negoziazio kolektibo sektorial gehiena ere ez-deusa litzateke arrazoi bera medio.

ELAk eskatzen du ezar daitezela arau demo-kratikoak patronalarentzat. Sindikatuak PRECO-ren Batzorde Parekideari jakinarazi dio ez duela Akordioa sinatuko patronalaren ordezkari-tza arautu eta egiaz-tzatu arte. Ehungintzaren Merkataritzari buruzko epaiaren ostean akordio hau si-natzea benetan ez dagoen normaltasun baten adierazgarri litzateke: Ez dugu onartzen Confebaskek, era antidemokratikoan, esparru guztie-tan erabakitzea zer den zilegi eta zer ez, ordezkari-tza minoritarioa duen arren, eta gobernuari eskatzen diogu berak ere ez dezala onar.

Gogoratu beharra dago Confebaskek berak baztertu zuela, Ehungintzaren Merkataritzako epaia argitaratu aurretik, Urkulluren gobernuak eskaini zuen alternatiba: Bizkaidendak eta CE-COBIn ordezkari-tza eragin legetarako %100 litzateke, eta ezarpen handiena zuen elkarteari %60 aitortuko litzaioke. Gobernuak ekidin nahi zuen negoziazio kolektibotik zutik geratzen dena hankaz gora bota zezakeen epai bat (jarrera txalo-garria). Esan bezala, Confebaskek ezeztzkoa esan zuen. Urkulluren gobernuak ez al dio Confebaski honi buruz ere konturik eskatu behar? Ez; kexu guztiak ELAri buruzkoak dira.

Confebasken jarrera bat dator bere azken adie-razpenekin; esaterako, ongi iritzi zioten Enpresa-rioen Zirkuluko buru den Oriol andereak esandakoari (bera Francorekin aberastu zen oli-garkiaren ordezkari petoa delarik), esplotazioa ahalbidetzen duten lan-kontratuak eskatu zitue-nean.

ELAk esan duen moduan, kontua ez da soilik Confebaskek ez duela Lan-Harremanen Euskal Esparruaren alde egin; aitzitik, oso pozik dago

“marca España” delakoarekin, zeren marka honi esker zirkunik egin gabe erraztu baitiote azken berrogei urtetan izan den eskubide suntsipenik latzena.

Bada, Jaurlaritzak patronal hau defenditzea erabaki du. Posizio patronal hauek ikusirik gure galdera da non ote dagoen harekin ados jartzeko moduko puntua.

5.- NOLATAN DEITU BEHAR ZAIO HONI “ELKARRIZKETA SOZIALA”?

Sistemaren zerbitzutan erabilitako hizkuntza ma-nipulatua izan daiteke izen hori erabiltzeko arra-zoi bakarra; hori, eta mugimendu sindikaleko kide batzuk parte hartzeko jarrera agertu izana. Azken berrogei urteotan ez dugu ezagutu orain-go-a bezain politika unilaterial, antisozial eta auto-ritariorik.

Hartara, ELAk Jaurlaritzari galdera batzuk egin nahi dizkio:

- Defizitaren kontrola eta zorraren ordaina le-henesten duen doikuntza estrukturaleko poli-tikari eutsiko al dio?
- Zerga-politika aldatuko al du, Europa mai-lako batez besteko presio fiskala ezartze al-dera, zeina BPGdko ia 10 puntu gorago baitago, jakinik urtero 4.400 milioi euro ge-hiago biltzeko aukera emango lukeela? PPK Madrilan egin nahi duen erreformaren jarrai-pena egingo al du?
- Administrazioan zuzeneko eta zeharkako enplegua suntsitzen jarraituko al du?
- PPrene reforma laborala bere eskumeneko esparruetan aplikatuko al du? Oraingoan, Jaur-laritzak adierazi du ELAk plazaratu zuen HELA ukatu egingo duela. Bere eskumeneko espa-rruetan ez du nahi prekarietateari inongo mu-garik jartzetik. Ezin onartukoa da prekarietatea sustatzen duenak gai honi bu-ruzko eztabaidarik ez onartzea. Ezeztzko hau ere bere “elkarriketa soziala”ren atal bat izan liteke.
- Nola konponduko ditu Jaurlaritzak Confebasken eta sindikatuen arteko desadostasu-nak bere eskumeneko gaietan? Patronalari beto eskubidea aitortzen jarraituko al du?

- Nola konponduko da hitzarmenak negoziatzeko eta aitorten instituzionala izateko ere patronalek duten ordezkaritza gabezia?
- Zer gertatuko da patronalak arlo pribatuan eredu gisa jartzen dituen arlo publikoko eta azpikontrata eta itunpeko sektoreetako negoziazio kolektiboarekin?
- Nola gehituko du gastu soziala pobrezia eta langabezia hazten ari den abagune honetan?
- Ba al du Jaurlaritzak Itzarrirako ekarpenak egiteko asmorik, horretarako atea irekitzen duen EAJk PPrekin adostutako zuzenketaren ostean?
- Bertan behera utziko al du ELAk eta LABek Hobetuzetik alde egitea eragin zuen prestakuntza eredu, Nafarroa eta Espainiako sistema perbertsoaren hedapena izan zelarik?
- Kutxabanken kapital pribatua sartzeari eragotziko al du? Aurrezkoa gure ekonomia errearen beharrezanetara bideratuko duen finantza-eredu bati emango al dio lehentasuna?
- Gobernuak jarraituko al du esaten gure sindikatuak ez daukela fiskalitateari edo Kutxabanki buruz iritzia emateko eskubiderik, Confebaski eta CCOOei onartzen dielarik?

Badakigu politika hauek aldatzeko ez dagoela borondate politikorik. Mahaia, baldintza hauetan, Lopezek CCOO, UGT eta Confebaskekin eratu zuenaren plagioa da. Zein izan zen haren funtsa? Enpresetan kontratu prekarioak finantzatzeko enpleguari buruzko akordioak; inolako eraginik izan ez zuten Osalanen kanpaina mediatikoak (esaterako, LOTU); Lanbide sortzeko erabakiari emandako babesak (lehengo lepotik burua...), Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko izatea onartuz; gero, Legebiltzarraren eskariz, Erakunde Autonomo bihurtu zen...

Elkarrizketa horren ezaugarria betiere da sindikatuek gobernuaren ekintza onestea. Mahai horretan parte hartuta ez da ezer baldintzatzen; ezertxo ere ez. Propaganda ugari eginagatik, elkarrizketa sozial beste zerbait da.

6.- LABEN PROPOSAMENA

Mahai horretako gure parte hartzea eragin dezakeen ezer ez da aldatu, Lehendakari aldaketa gorabehera. ELAren ustez, LABek ere badaki hori; badaki ez dagoela gure partaidetza justifikatuko duen edukirik.

Horrenbestez, deigarria iruditu zaigu beren proposamena zein modu anbiguoan adierazi duten. Posizio argiak finkatzea ezinbesteko den uneotan anbiguo izatea ez dator bat egoeraren gordinarekin.

ELA bat dator LABekin patronalari eta gobernuari buruz egiten duen diagnostikoan. Baina egiaztatu ostean biak estrategia politiko eta sozial bera dutela (baita sindikatuen estigmatizazio eta kriminalizazioari dagokionez ere), ez dago ados akordioak ixteko aukera dagoela pentsa arazteko asmoarekin. Ezta amaieran proposamen oso eskasa egitearekin, esanez nahikoa dela "benetako parte hartzea bermatzea". Kontua ez da gai guztietaz hitz egiteko aukera izan ala ez (batzuk hau ere ukatu nahi diguten arren); arazoa da Jaurlaritzak ez duela ezer egingo baldin eta patronala gogaitzen badu, eta doikuntza estrukturalako politika berdinekin jarraituko duela.

Negoiazio kolektiboaren arloan, PPrek erreforma indarrean sartu zenetik bi urte igaro direlarik, LABek ez dio artean autonomia estrukturalik eman nahi enpresa mailako hitzarmenen negoziazioari, eta bere oinarritzko estrategia sektorean kokatzen du. Estrategia hau okerra dela uste dugu, bi arrazoi nagusiren ondorioz: Lehena, negoziazio sektorialeko zatirik handienari (dagoeneko derrigor bete beharrekoa ez dena) balioa kendu dion erreforma baten hankapean dagoelako, nahiko genukeena ez bezalako indar-erlazio bat dagoelako eta patronalaren blokeoagatik. Esparru sektorial gutxitan lortu dugu erreformaren aurkako klausulak sartzeari. Bigarrena, enpresei autonomia hori ukatu eta enpresa-ituna eta -hitzarmena gauza bera dela esaten tematuta enpresarioari uzten zaio negoziazio esparru erreal hori hautatzeko aukera, erreforma aplikatu eta lan-baldintzak birrinduta utz ditzan. Erabaki honek gure ustez eragin kaltegarria izango du etorkizunean. Erreformen xedea sektore esparruari balioa kentzea da, eta negoziazio kolektiboa enpresetara eramatea. Horixe eskatu zuen FEDEA fundazioak: negoziazio kolektiboa enpresetara eraman behar da "han enpresarik ez dagoelako".

Patronalak argi utzi du bere posizioak onartzeraino lerratu ezean ez dela Nafarroako edo Espainiako tankera ez duen negoziazio sektorialik izango. Ez du onartu ere LABen lan-ardatzak gauzatzetik: Lanbidearteko Akordioak eta Akordio Marko Sektorialak.

ELA bat dator LABekin: Urkulluk negoziazio kolektiboa ukatzen du, Madrilen ildoari zintzo jarraitzen dio eta enplegu publikoa suntsitzen du, esaterako Oasakidetzako 3.000tik gora lanpostu.

ELAk oso kritika zorrotza egin dio EITBko Administrazio Kontseiluan EAJK, Bilduk eta LABek Eusko Irratiari buruz hartu zuten erabakiari. Beronen ondorioz, erregularizatu beharrekoak ziren 79 lanpostuetatik 30 baino gehiago amortizatu egingo dira. ELAk ez du akordio hau justifika dezakeen kontrapartida sindikalik ikusten, areago kontutan izanik 2010etik hona 200dik gora enplegu kendu dituztela.

ELAren ustez, egungo egoera oso zaila izan arren, haratago begiratu beharra daukagu. Azken erreformaren eta etorkizun denaren helburuak gaur ikusten ari garenetik askoz urrunago daude, eta sindikalismoa prestatu egin behar da agertoki horretarako. Erreforma jende asko negoziazio kolektiborik gabe uzteko egin dute, sinatutako hitzarmenak aplika ez daitezen (esparru askotan gertatzen da hau)... Antolakuntza hobetzea beste biderik ez dugu egoera horri aurre egiteko.

LABek ahaztu egin du bere azterketan Jaurlaritzak eta Confedebak nahi duten "euskal eredu" horrek "Espainia marka" bere egiten duela, eta posizio hau behin betikoa dela. Nor ekin eraiki nahi dute Lan-Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparrua? Ba al dago horren alde egingo duen euskal patronalik? Ba al dago arrisku politikoren bat bere gain hartzeko prest dagoen gobernurik? ELAk dio inondik ere ez duela hori ikusten.

7.- AKORDIO PARTZIALAK POSIBLE AL DIRA?

Jaurlaritzari adierazteaz gainera ez duela Mahai hortan parte hartzeko asmorik, ELAk proposatuzion bi aldeon intereseko izan zitezkeen gaiak eztabaidatzea. Eskaintza bera egin zitzaion Lopez Lehendakari zen garaian PSEren gobernuari ere.

ELAk Hobetuz, Osalan eta Lanbide aipatu zituen.

Zalantza aldi baten ondoren, Jaurlaritzak esan du bere lehentasuna Elkarrizketa Sozialeko Mahaia dela. Erabaki horrekin berriaz adierazten da, orain arte bezala, politika berdinekin jarraituko dutela, baita gai partzialetan ere. Gobernuak epe laburrean lehenetsi egiten du, PSEko Lopezek bezala, bere politiken inguruko adostasun sozialaren irudia eman dezakeen mahai bat.

ONDORIOAK

ELAk ez du Elkarrizketa Sozialeko Mahaian parte hartuko, elkarrizketa sozialik ez dagoelako.

1. Gobernu-politikek galarazten dute elkarrizketa soziala izateko aukera. Doikuntza estrukturalako bere politikek –espainiar Gobernuarekin hitzartuak– eragozten dute. Politika horien ondorioak langabezia, txirotasuna eta desberdintasun larriagoa dira.

2. Eusko Jaurlaritzak ez dauka arlo soziolaboraleko eskumenik, eta espainiar legeak jokaleku oso bortitza taxutzen du, patronalari zeukana baino askoz botere handiagoa ematen diona. ELAk ez du ikusten Gasteizko gobernuak benetak borondatea duenik arlo soziolaboraleko eskumenek berriro zor zaien garrantzia izan dezaten.

3. Trantsizio bat ari gara pairatzen, gero eta gizalege gutxiago duen eta informalagoa (eskubiderik gabekoa) den lan merkatu baterantz, eta botere publikoek ardurua guztiak pertsoneri leporatzen dieten gizarterantz, horrela ihes egiten diotelarik oreka sozialak bermatzeko dagokien erantzukizunari.

4. ELAk badaki Jaurlaritzaren helburua zein den: politika berdinei eustea eta babes sindikala lortzea kontsentsu soziala dagoelako itxura emateko.

5. ELA oso kritikoa da gobernuakide eta hedabide batzurekin (EITB), ikusirik esparru guztietan inboluzio honi aurre egiten diogun erakundeon kritika eta alternatibak nola estigmatizatzen, ezkututzen eta indargabetzen dituzten.

6. Elkarrizketa sozialeko osagai nagusiak parte hartzea eskaintzen diguten mahaietatik kanpo erabakitzen dira: eskubide laboral eta sozialen aurkako erreforma estrukturalak, fiskalitatea,

defizit publikoaren muga, zorraren ordaina, oinarritzko araudi estatala...

7. Bere eskumeneko esparruetan Jaurlaritzak negoziazio kolektiboko eskubidea ezabatu egin du, eta bere politikek zeharkako nahiz zuzeneko enpleguaren galera dakar. Ezin da onartu Jaurlaritzak negoziazio kolektiboaz hirugarren pertsonan hitz egitea.

8. Patronalak esan du ez daukala negoziatzeko inongo beharrik. Pribilegiozko kokapen horretan jarrita, espero du mugimendu sindikalak edukie uko egin eta berak jartzen dituen baldintza guztiei men egin arte lerratzea.

9. Confebaski legeak ematen dio nahi duena. Mahaia horrela taxututa patronalak ez du mugimendurik egin behar, bai baitaki gobernuak ez duela bere interesen aurkako ezer erabakiko.

10. ELAk Jaurlaritzari eskatzen dio ekin diezaiola patronalaren ordezkaritza egiaztatzeari. Egungo egoera jasangaitza da: Batetik, patronal honek ez dauka legeak eskatzen duen ordezkaritzarik, eta negoziazio kolektiboa blokeatzen du; bestetik, zerbait gustokoa ez duenean, auzitara jotzen du akordioak indargabetzeko. Ordezkaritzarik ez eta gainera, patronal hau diru publikoz finantzatzen dute soziala den guztiaren aurkako lobby gisa joka dezan.

11. LABek argitaratu duen posizioa beharrik gabe anbigua da. LABek badaki Mahai honetan

Lopez Lehendakariaren garaian edota Nafarroan izan den emaitzarekiko ez dela beste etekin funtsezkorik lortuko.

12. ELAk aldarrikatu egin nahi du politika publikoen inguruko osagaiei buruz iritzia adierazteko duen eskubidea, eta salatzen du politika horiekiko ahots kritikoak isilarazteko asmo antidemokratikoa.

Garaiotan konpromiso sindikal, sozial eta politikoa hartu behar da une larriak bizi dituen jendearekiko. Elkarrizketa sozialaren aitzakiak gobernuari beta ematen die ezagutu izan ditugun erabakirik injustuenak mozorrotzeko, baita mugimendu sindikala atera arazteko bere lan-ildoetatik: antolakuntza, alternatibak lantzea eta jendea mobilizatzea.

Garai latzak ditugu hauek. ELAk uste du arriskurik gabe ez dagoela sindikalismorik; amore emanaz gero erakunde dependente eta erabat ezdeusak bilakatuko ginateke. Gauden fase honetan sindikalismoak ez du indarra lortzen mahai horietan, non eseri orduko erabakitako gaiak jartzen diren; antolakuntza eta ekintza sindikal eta soziala da bidea.

Mugimendu sindikalak bakarrik utzi behar ditu doikuntza estrukturalak ezartzen dituzten gobernuak.

ELAko BATZORDE ERAGILEA